

1948ko abenduaren 10ean, Nazio Batzuen Batzar Orokorrean, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onetsi zen, eta, harrezkeroztik ospatzen da egun horretan Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna.

Giza Eskubideen Deklarazioak balio unibertsalak biltzen ditu, baita herri, nazio eta pertsona guztientzako ideal bera, den-denok berdintzat hartzen baikaitu askatasunean zein duintasunean.

Gaur hemen, Iruñean, hainbat talde eta entitate elkartu gara, lanean ari baikara giza eskubideak errespetatu daitezzen bai Nafarroan bai mundu guztian; izan ere, denen arteko sinergiak eta zubiak eraiki nahi ditugu giza eskubideen alde, honakoak kontuan harturik:

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak pertsona guztiok indartzen gaitu.
- Giza eskubideek lotura dute gutako bakoitzarekin, egunero.
- Batzen gaituen giza izaerak balio unibertsal horietan du oinarria.
- Zuzentasuna, justizia eta askatasuna dira indarkeriaren kontrako prebentzio neurri hoberena, bakerako bermea.
- Munduko edozein bazterretan giza eskubideak urratzen diren bakoitzean, arrisku latza dugun denok.
- Geure eta denen eskubideen alde borrokatu behar dugu.

Hauxe da gure apustua Nafarroarentzat: giza eskubideak defendatzen duen gizartea, bakean bizi dena, pertsona guztiak hartzen dituen eta haien eskubideak onartzen dituen pertsona horiek edonondik datozela ere. Gainera, herritar guztiei deia egiten diegu giza eskubideak besarka ditzan, giza eskubideak har ditzan banderatzat, Nafarroan bizi garen guztion banderatzat.